

“BERTSOLARITZA AHOZ AHO ETA BELAUNALDIZ BELAUNALDI”

1.- Bertsolaritzaren hastapenak

- Euskaldunak betidanik zaletasun handia izan du ahozko literaturarengatik, eta dirudienez batbatekotasuna edo inprobisazioa aintzinatean datorkigun disziplina dugu. Bertsolaritza historikoaren lehenengo zehazkizunak 1800. inguruko urtetik datozkigu Iztuetaren eskutik, berak bere idazki batetan esaten digunez, urte hartan Billabonan 4.000 inguruko lagun bildu bait ziren bi bertsolariren saioa entzuteko.

- Baina gaurko bertsolaritza ez da beti horrelakoa izan, baizik eta historian zehar garapen logiko bat eduki du. Garapen hori guztiz ezezaguna egiten zaigun arren, hortxe hor garai kantuar, eresiak eta koplak zaharrak; eta ziur aski hauengan oinarritu behar dugu bertsolaritzaren aurrekoak ikertzeko orduan.

- a) ERESIAK. Badirudi aintzinatean eginkizun berezietan (eztaietan, hiletetan,...) andre-ek batbateko bertso motzak botzen zituztela. Ezagutzen den zaharrena: “Lazturko Milia”.
- b) KANTUAK. Erdi Arotik datozkigun kanta epikoak dira. Beraien gaia garai bateko banderizoen arteko gudu eta gatazketatik sortzen delarik. Gaur egun hamabost bat ezagutzen ditugu eta garrantzitsuena: “Beretherretxen kantoria” izeneko kantu zuberotarra.
- d) KOPLA ZAHARRAK. Ospakizun edo jairen bat azaltzen digute. Arruntean lehenengo erdian koplaren hariarekin ez datorren zerbait ederra esaten digute, eta bigarren erdian hariarekin jarraitzen dute. Gabon Kantak, Olentzeroarenak eta Santa Agedarenak dira agian gure arteko ezagunenetakoak.

2. Bertsolaritzaren sailkapena

- Badaude zenbait sailkapen ezberdin baina agian garrantzitsuena Manuel Lekuonak egindakoa, eta horixe izango da hemen emango duguna.

1.- Erromantizismoaurrea (1800-1839)

Nekazari giroko bertsolaritza. Bertsolariak: Pernando Amezketarra, Izuelako Artzaia, Pudes Zaharra, Bordel, Zabala, Txabalategi, Ametza, Aizarnazabalko Sakristaua, Altamira, Oztozko Donarua, Otobezino, Albitxuarra, Mitxel, Tolosako Harakina,...

2.- Erromantizismoa (1839-1876)

Nekazari giroko bertsolaritza, nahiz eta mundu teknikoago baten lehenengo aztar-
nak azaldu: ferrokarrila,...

Bertsolariak: (bapatekoak) -Xanxo, Auxtin Zakarra, Xenpelar, Larraburu, Lexoti,
Eperra, Ardotx, Bekoitxia, Ibarre, Xorrola, Bortondo, Arotxa, Etxhaun Zaharra,
Oxalde, Dibarrart,... (bertso paperezkoak), Bilintx, Iparragirre, Urtxalle,...

3.- Pizkundeaurrea (1876-1935)

Industri giroa, abertzale planteamenduak, literatur mugimenduak. Bertsolariak:
Txirrita, Udarregi, Pello Errota, Gaztelu, Patxi Bakallu, Saiburu, Txapel, Frantxexa,
Mintegi, Paulo Iantzi, Zubeltzu, Joakin Naparra, Atano, Zepai, Itxaspe, Abarrategi,
Martxelina, Nekezabal, Sorozabal, Kortatxo, Etxeberria, Uriarte, Larralde, Mattin,
Zubiat, K. Enbeita, Fermin Imaz, Balentxi, Kaxkazuri, Juan Krutz Zapirain, Txanka,
Txirristaka, I. Enbeita,...

4.- Pizkundera (1935-1968)

Bertsolaritza kaleratu egiten da, eta komunikabideetan sartu. Bertsolariak:
Mixelena, Uztapide, Xalbador, Azpillaga, Lopategi, Pujana, Gorrotxategi,
Mugartegi, Arrosagarri, J. Aierbe, (Lazkaotxiki), Lazkano, Basarri, NARBarte,
Arozamena, Mattin, Joxe Lizaso, Kasiano Ibarguren, Koxme Lizaso, Xanpun,
Iraola, Otsoteko, Arriola, Mujika,...

5.- Bertsolaritza Soziala (1968-1977)


Kaleko bizitza, eta baserriaren atzerakada. Nazional planteamendu gogorrak.
Euskal Herriaren borroka.

Bertsolariak: Agirre, Garmendia, Egileor, Larrañaga, Zeberio, Muñakorta, Jon
Enbeita, Matxain, Lasarte, Amuriza, Olean, B. Enbeita, Etxahun Iruri, Ezponda,
Lexo, Mitxel Xalbador, Igartzabal,...

6.- Bertsolaritza eskolatua (1977-1995)

Bertsolari eskolak nonhai sortzen dira. Demokraziaren porrota. Euskal borroka.
Langabezia. Euskal Herria Europaren aurrean.

Bertsolariak: Amuriza, J. Enbeita, Egaña, Murua, Sarasua, Mendizabal, Galarraga,
Euzkitze, Telleria, Loidi-Saletxe, Peñagarikano,...



- Baina badaude sailkapen gehiago ere, hauen arteko agian sonatuena belaunaldiz belaunaldi egindakoa.

- 1.- PERNANDO AMEZKETARRAREN BELAUNALDIA (1764-1823)
Bertsolariak: Zabala, Txabalategi, Ametza, Otobezino,...
- 2.- XENPELARREN BELAUNALDIA (1839-1876)
Bertsolariak: Xenpelar, Bilintx, Iparragirre, Etxahun Zaharra, Ibarre, Xorrola, Iztueta, Bordel, Exkerra,...
- 3.- UDARREGI, ELIZEGI ETA OTAÑOEN BELAUNALDIA (azken karlistadatik aurrera)
Bertsolariak: Udarregi, Elizegi, Otaño,...
- 4.- Txirrita eta Enbeitaren belaunaldia (1936. urte arte)
Bertsolariak: Txirrita, Enbeita,...
- 5.- BASARRI ETA UZTAPIDEREN BELAUNALDIA (gerra eta gero)
Bertsolariak: Basarri, Uztapide, Xalbador, Mattin,...
- 6.- AMURIZAREN BELAUNALDIA (azken urte hauetan)
Bertsolariak: Jon Enbeita, Lopategi, Azpillaga, Lizaso,...
- 7.- GAURKO BELAUNALDIA (1980-1995)
Bertsolariak: Euzkitze, Murua, Egaña, Loidi-Saletxe, Otsoteko, Peñagarikano, Telleria, Sebastian Lizaso,...

3.- Teknika

Teknikaren osagaiak: DOINUA, ERRITMOA, ERRIMA eta NEURRIA

Bertsogintzaren hiztegi tipia:

- a) OINA: lehenengo bertso lerroa.
 - b) OINA JARTZEA: lehenengo bertso lerroa ematea.
 - d) POTO: errima bera bi aldiz erabiltzea.
 - e) ETENA: erritmoak bertso lerro bat bitan banatzen duen unea.
 - f) ERRENKADA: bertso lerroa.
 - g) PUNTUA: lehenengo errima da, eta bigarren lerroaren bukaeran dago.
- A) DOINUA. - Ehundaka daude eta batzuk oso zaharrak.
- B) ERRIMA. - Izan daiteke asonante bokalez bukatzen badu edo bestela kontsonante errimatzen duena azken silaba osoa baldin bada.

- Eta bertsoaren kalitateari begiratzuz errima honela banatu daiteke:

1.- ERRIMA TXARRAK

a) Deklinabide eta atzizkietaz baliatzen dira. Adibidez: gizonARI
/txakurrARI/andreARI.

b) Zenbait aditz formekin osatutakoak. Adibidez: etorTZEN/bilTZEN/afalTZEN.

OHARRAK: 1a) Hala ere ez da engainatu behar atzizki berari bakar bakarrik begiratzuz, baizik eta atzizkiak aurrean daraman silabari begiratzuz ere; agian silaba horiek errimatzen bait dute baita ere, eta orduan ezin daitezke errima horiek txartzat hartu.

Adibidez: auzO-tik//besO-tik//lepO-tik
zokO-tik//orpO-tik

2a) Askotan badaude esangura ezberdinetako hitzak, baina idaztanke-
ra berdinaoak, eta hauek ez dira pototzat hartzen:

Adibidez: artea (diziplina) // artea (zuhaitza)
hila (hildakoa) // hila (hilabetea)

2.- ERRIMA ABERATSAK

Bilatzeko zail samarrak direnak.

Adibidez: sor//zor//hor//legor//

sahiets//sinets//baietz//maietz//

eskuz//ikus//gorputz//

ertz//pertz//beltz//

lirain//gain//zain//irain//



D) ERRITMOA.- Bertsoa puntuetan zatitzen bazen eta puntua bi lerrotan, orain erritmoak lerro bakoitza beste bi pusketan banatuko ditu. Musika kolpe edo espazio bakoitzari dagozkion hainbat silaba behar ditu. Hau da, musika kolpe edo espazio hori bukatzen denean hitza ere amaitua egon dadila eta ez dezala erdiz erdi harrapa. Kontuz ibili zortzi-ko txikiek ez bait dute askotan beren lerrotan erritmoaren etenarik.

ERRITMOAREN ADIBIDEAK:

“Donostiako / hiru damatxo
Erreterian / dendari” _____ ONGI

“Donostiako hi / ru damatxo
Erreterian den / dari” _____ GAIZKI

PUNTUA izan daiteke luzea edo motza. Adibidez:

- a) PUNTU LUZEA.- 1. errenkadan10 silaba.
2. errenkadan 8 silaba

Adibidez: “Ume eder bat ikusi nuen (10)
Donostiako kalean...” (8)

- b) PUNTU MOTZA.- 1. errenkadan7 silaba
2. errenkadan6 silaba

Adibidez: “eman da zabal zazu (7)
munduan frutua....” (6)

E) NEURRIA.- Neurriari begiratzuz bertso molde hauek sortzen dira:

1.- ZORTZIKO NAGUSIA.

Ezaugarriak: 8 errenkada ditu.
1,3,5,710 silaba
2,4,6,8 8 silaba

2.- HAMARREKO NAGUSIA edo ZORTZIKO HAUNDIA.

Ezaugarriak: 10 errenkada ditu.
1,3,5,7,910 silaba
2,4,6,8,10 8 silaba
Zortziko Nagusiari bi errenkada gehiago erantsi besterik ez da.

3.- ZORTZIKO TXIKIA

Ezaugarriak: 8 errenkada ditu

1,3,5,77 silaba

2,4,6,86 silaba

batzuetan ez dauka etenik errenkaden barruan.

4.- HAMARREKO TXIKIA

Ezaugarriak: 10 errenkada ditu

1,3,5,7,97 silaba

2,4,6,8,106 silaba

batzuetan ez dauka etenik errenkaden barruan.

Zortziko Txikia gehi bi errenkada gehiago besterik ez da.s

5.- BEDERATZI PUNTUKOA

ezaugarriak: oinarria zortziko txikian du, hots 8 errenkada zazpi eta sei silabetakoak. Gero erantsi egiten zaizkio 4 lerro gehiago zortzikoa bukatzen den errimari jarraituz, eta gero bukatzeko bi errenkada gehiago baina zortziko txikiaren etenari jarraituz.

Adibidez:

(-) librea

(a) a errima

- Bertso berriak jartzen

a orain naiz abIAN,

- predikatzer a nua

a EuskalerrIAN

- Betroi bat hartu nuen

a Hernanin ferIAN

- galantzia egingo

a zuela agIAN ————— zortziko txikia

a trixtura begIAN

a beti aulezIAN

a ez haren preMIAN

a nere famellIAN ————— gehi 4 errenkada

- Xenpelarrek dakizki

a ErrenterIAN ————— bukaerako bi errenkadak, zortziko txikiaren puntua errespetatuz.



Karlos eta Joxe